2025-2026ko ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI EKINTZETARAKO LAGUNTZAREN DEIALDIAREN BABESEAN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK EMANDAKO EBAZPENARI LOTUTAKO PROIEKTUAK BIDERATZEKO HITZARMENA

Hernanin, 2025ko irailaren 17an

AGERTU DIRA

Alde batetik, Mª Francisca Ibarguren Echeverria, Beterri Buruntza Mankomunitateko Lehendakari gisa, Gobernu Batzordeak 2023ko uztailaren 20an hartutako akordioaren arabera.

Bestetik, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernani Udaleko alkate gisa, indarrean dagoen legeriak emandako eskumenak erabiliz (hemendik aurrera, “Udala”).

ESKU HARTZEN DUTE

Beraien karguei dagozkien betekizunen arabera; elkarri gaitasun osoa aitortzen diote Hitzarmen hau egiteko, eta horretarako,

ADIERAZTEN DUTE

Lehena.- Beterri Buruntza Mankomunitatea Lasarte-Oria, Andoain, Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Usurbileko udalek eratutako toki erakundea da, 7/1985 Legearen apirilaren 2koaren Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 44. artikuluak eta 2/2016 Legearen, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 102 artikuluak ezarritakoaren haritik.

Bigarrena.- Beterri Buruntza Mankomunitateak nortasun eta gaitasun juridiko osoa du bere xede diren helburuak betetzeko, bere Estatutuek arautzen dutenaren arabera.

Estatutuen 5. artikuluak xedatzen duenez, Mankomunitatearen azken helburua da osatzen duten udalerrien sustapen eta garapen sozioekonomikoa eta herritarren ongizatea hobetzen laguntzen duten jarduera guztiak egitea. Helburu hori gauzatzeko, jarduera hauek egin ahal izango du Mankomunitateak, besteak beste: b) Giza garapen jasangarria errazten duten jarduerak proposatu eta sustatzea, ingurumena errespetatuz, sozialki arduratsua den jarduera ekonomikoa bultzatuz

ESKRIZ0000-b7a7-362fcf36f1d4

eta jarduera horien bidez herritarren parte-hartzea sustatuz eta f) enplegu duina eta kalitatezkoaren bidez gizarteratzea erraztuko duen eskualdeko enplegu-zerbitzua eskaintzea.

Udalaren kasuan eskumen hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan dago jasota, batez ere, e) atalean: “gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei berehalako arreta ematea”.

Hirugarrena.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2025eko uztailaren 14ko bilkuran, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko ekitaldirako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen erabakia hartu du eta hala eman da argitara, uztailaren 31an, *EBAZPENA, 2025eko uztailaren 15ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratzeko dena (hemendik aurrera, “Lanbideko deialdia”).*

Laugarrena.- Beterri-Buruntza Mankomunitateak aipatutako deialdiari erantzunez 365.000,00€-ko dirulaguntza eskaera egin du, programako 1. mota (Enplegua sustatzeko ekintzatzat hartzen dira egiten diren kontratazioak) egiteko eta 2.motako (enpresei bideratutako kontratazio dirulaguntzak) lerroak gauzatzeko. Hala ere, aipatzekoa da proiektu osoaren guztizko kostua 497.032,02€koa dela.

Bosgarrena. 1. mota, “Enpleguaren sustapena”, hiru lerrotan desberdindu daiteke, kontratatzen duen erakundearen arabera: a) Lan anitzetarako operarioak (peoiak), Beterri-Buruntzako Udalek kontratatuko dituztenak, b) Enplegu ekintza eta kontratazio dirulaguntzen dinamizatzailea, Beterri-Buruntza Mankomunitateak kontratatuko duena eta c) 3. sektore eragileen bitartezko kontratazioak. Ondorengo taulan laburbiltzen da 1. mota honek dituen ezaugarri nagusiak:

1.GO MOTA: ENPLEGUAREN SUSTAPENA	KOSTU TOTALA	LANBIDEREN dirulaguntza	BMM-ren ekarpena	UDALEN ekarpena	Lanaldia	Iraupena	Lanpostuak	Emakumeak
LAN ANITZETARAKO OPERARIOAK: peoiak	299.250,00 €	187.500,00 €	21.750,00 €	90.000,00 €	100	5	15	9
ENPLEGU EKINTZA ETA KONTRATAZIO DIRULAGUNTZEN DINAMIZATZAILEA	25.741,44 €	12.500,00 €	13.241,44 €		71,43	8,4	1	1
3. SEKTOREKO ERAGILEEN BITARTEZKO KONTRATAZIOAK	57.040,58 €	50.000,00 €	7.040,58 €		100	6	4	2
Enplegu teknikaria (EDE Fundazioa)	*18.500,00 €*	*12.500,00 €*	*6.500,00 €*	*0,00 €*	*100*	*6*	*1*	*1*
montaje de cerraduras electronicas (KATEA LEG	*38.540,58 €*	*37.500,00 €*	*1.040,58 €*	*0,00 €*	*100*	*6*	*3*	*1*
OROTARA	382.032,02 €	250.000,00 €	42.032,02 €	90.000,00 €			**20**	**12**

Hortaz, 1. lerro honetan 20 kontratazio bideratuko dira guztira.

ESKRIBAUA-b7a7-362fcf36f1d4

2. lerroari buruz esan Beterri-Buruntzako pertsona fisiko eta juridikoei zuzendutako dirulaguntzak izango direla, eskualdeko langabetuak kontratatu ahal izateko. Hauek dira lerro honetako ezaugarri nagusiak:

2.MOTA: KONTRATAZIORAKO DIRULAGUNTZAK	KOSTU TOTALA	LANBIDEREN dirulaguntza	BMM-ren ekarpena	UDALEN ekarpena	Lanaldia	Iraupena	Lanpostuak	Emakumeak
2025ko BETERRI-BURUNTZA ESKUALDEKO KONTRATAZIO DIRULAGUNTZAK	115.000,00 €	115.000,00 €	0,00 €	0,00 €	%100 eta %50	12 (6)	16	9

Seigarrena.- Aurreko puntuan esan bezala, 1. lerroaren baitan "lan anitzetarako operarioak (peoiak) kontratatuko dira (15 guztira). Aurreko edizioen esperientzian oinarrituta, ikusi da oso lagungarria eta komenigarria dela peoi horiek lanean jarri baino lehen prestakuntza espezifikoa eta profesionala jasotzea lanean jarri aurretik, ahalik eta prestatuen iristeko, bai programa honen baitan eskainiko zaien lanpostuetara, bai etorkizunean izan ditzaketen lan-munduko beste lanpostuetara. Hortaz, kontratatu aurretik, 15 langilek hainbat lanbidetako oinarrizko prestakuntza jasoko dute, ondoren, Beterri Buruntza eskualdeko udalerrietako hiri-espazioen mantentzea burutzeko.

Aipatutako prestakuntza horien diseinua EAGI eraikuntza eskolarekin egingo da, udalerriek dituzten langile beharretara eta horien profiletara ahal den neurrian egokituz. Prestakuntza bera (motibazioa, lanerako gaitasunak eta prestakuntza espezifikoa) EAGIk eskainiko du beraien instalazioetan. Gainera, Mankomunitateak bere gain hartuko du formakuntza horren kostua eta formakuntzaren antolaketa eta koordinazioa ere Mankomunitatearen esku egongo da.

Proiektu horren barruan, eskualdeko udalek 15 lan-kontratu sinatuko dituzte (*Andoaingo Udalak 3, Astigarragako Udalak 2, Hernaniko Udalak 3, Lasarte-Oriako Udalak 3, Urnietako Udalak 2, Usurbilgo Udalak 2)* 2025. urtea bukatu aurretik. Kontratu horiek egiterakoan, hautaketa prozesuak burutzeko LANBIDEk deialdian jasotako betekizunak errespetatuko dira eta LANBIDEk emandako joko-arauak betetzeko ardura hartzen du Mankomunitateak.

Beterri Buruntzako udalek egingo dituzten kontratuek LANBIDEk ezarritako baldintzak beteko dituzte eta beraien ardura izango da baldintza horiek ez betetzeak ekarri ditzazkeen ondorioak jasatea.

Zazpigarrena. Hitzarmen hau LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuko enplegua sustatzeko tokiekintzetarako laguntzen deialdiaren markoan kokatzen denez, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzen ebazpenera baldintzatuta egongo da.

Hori guztia arautzeko, Beterri Buruntza Mankomunitateak eta Udalak hitzarmena sinatzea erabaki dute jarraian jasotzen diren xedapenekin.

ESKRIBAUR-b7a7-362fcf36f1d4

XEDAPENAK

Lehena.- Xedea:

Hitzarmen honen xedea da, Udalaren eta Beterri Buruntza Mankomunitatearen arteko lankidetzaren nondik norakoak arautzea; batetik, LANBIDEren oinarri arautzaileen argitara eman den ebazpenaren ondorengo kudeaketa teknikoa behar bezala bideratzeko, eta bestetik; hortik eratortzen den dirulaguntza ekonomikoa nola bideratu zehazteko.

Bigarrena.- Baliabide ekonomikoak eta ordainketa-sistema:

LANBIDEri egindako eskaeraren arabera 365.000,00€ dira Beterri-Buruntza Mankomunitateak eskatutako laguntza 1 mota eta 2. motara bideratutako proiektuetarako.

1. motako egitasmoari dagokionez, udalerri bakoitzaren kontratazio gastuen aurrikuspenaren arabera (ikus I. eranskina), egitasmo honen gauzatzeak **37.500,00 €**ko finantzaketa ekarriko diola Udalari aurreikusten da. Diru hori jasoko da baldin eta aipaturiko Lanbideren oinarri arautzaileetan jasotako baldintzak betetzen badira eta egitasmoa bere osotasunean gauzatzen bada.

Mankomunitateko 2025ko aurrekontuarekin onartu zen bezala, Mankomunitateak LANBIDEren ordainketa-sistemaren arabera egingo ditu ordainketak aurten ere, eta dirulaguntzaren kopurura mugatuko da Udalari egokituko zaiona. Beraz, ordainketa bi momentutan egingo da: udalari dagokion laguntza kopuruaren %53a hitzarmena sinatzen denean (2025ean) eta gainontzeko %47a LANBIDEK Mankomunitateari ordainketa egiten dionean (2027an).

Dirulaguntza honen bidez ordainduko dira kontratatutako pertsonaren soldata-kostuak eta gizarte segurantzakoak, kontratu amaierako kalte-ordainak, eta 9 hileko kontratazioaren gehieneko muga izanik. Ondorioz, dirulaguntzaren zenbatekoa, guztira, ezin izango da izan kostu horien %100 baino handiagoa.

Beterri Buruntza Mankomunitateak bere 2025. urteko aurrekontuko partida hau erabiliko du proiektu honetarako: 1 0100.411.241.00.00 2025 (101) TEE 2025-2026

Hirugarrena.- Udalaren eginkizunak eta betebeharrak:

Udalaren eginkizunak honakoak dira:

a) Egitasmoa onartzea (oinarri arautzaileei jarraiki).

b) Lan eskaintza bideratzeko informazioa Mankomuniateari helaraztea.

c) Udal-langileak dirulaguntza hauen baitan egiten den hautaketa prozesuetan parte hartzea (hautazkoa).

d) Lan-kontratuak egitea eta sinatzea kontratatutako pertsonarekin.Baita ere kontratazio horien ardura hartzea ere.

ESKRIBAUR-b7a7-362fcf36f1d4

e) Eskaeran zehaztutako lanak bideratzea (ikus II. Eranskina).

f) Langilekoarekin sor daitezkeen gorabeherak Beterri Buruntza Mankomunitateari jakinaraztea, azken honek LANBIDEri eman beharko lizkiokeen azalpenak, argibideak, irtenbideak, … zehazteko edo bideratzeko asmoz.

g) Kontratazioa amaitu eta bi hilabeteko epean, Beterri Buruntza Mankomunitateari zuriketa egiteko dokumentazioa aurkeztea. Lanbideko deialdiko 9. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztuko dio Mankomunitateari esandako epean.

h) LANBIDEren eta Mankomunitatearen esanetara jartzea, egitasmo zehatz honen kudeaketan egoki irizten dituen gauzatze zein egiaztatze lanak egin ditzan.

Laugarrena.- Beterri Buruntza Mankomunitatearen eginkizunak eta betebeharrak (erakunde laguntzaile izaera edukiz):

Beterri Buruntza Mankomunitatearen eginkizunak honakoak dira:

a) LANBIDE eta Udalaren aurrean interlokuzioa.
b) Kontratazioak bideratzeko dokumentazioa bateratzea eta lan eskaintza bideratzea.
c) EAGIko formakuntza antolatzea eta ordaintzea
d) EAGIko formakuntzan parte hartuko duten langileek beharrezko dituzten materialak erostea eta ordaintzea. Gastu honetan ez da sartzen behin Udalak kontratazioak eginda langileak (peoiak) behar dituen materialak Udalak agindutako lanak egiteko, izan ere, material hauek izatea eta/edo erostea Udalaren ardura da, Mankomunitateari gastu hori egotzi gabe.
e) Kontratazioetarako hautagaiekin elkarrizketak kudeatzea eta hautagaien artean aukeraketa burutzea.
f) Diruz lagundutako jarduerak eta helburuak bete direla egiaztatzea, dirulaguntzak arautzen dituen deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera.
g) Sor daitezkeen gorabeheren aurrean, gaia aztertu eta oinarrietan ezarritakoaren araberako irtenbideak bilatu eta gauzatzea.
h) LANBIDEri aurkeztu beharreko zuriketa egitea (teknikoa + ekonomikoa).
i) LANBIDEren esanetara jartzea, egitasmo zehatz honen kudeaketan egoki irizten dituen gauzatze zein egiaztatze lanak egin ditzan.
j) 2. xedapenean aipatzen diren ordainketak egitea Udalari.

Bosgarrena.- Datuen kudeaketa:

Udalak, gai honetaz arduratzen den udal-langilearen bitartez, Mankomunitatearen eskura jarriko ditu, lankidetza-hitzarmen honen testuinguruan, Beterri Buruntza Mankomunitateko Idazkaritzak eskatzen dituen datu eta administrazio dokumentuak, administrazio erakunde bakoitzak horretarako eskumena duten teknikariak izendatuz.

ESKRIBAUA-b7a7-362fcf36f1d4

Seigarrena.- Iraupena eta indarraldia:

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean eta indarrean egongo da LANBIDEren aurrean aurkeztutako zuriketa ontzat eman ondoren Udalari azken ordainketa egiten zaion unera arte. Beraz, programaren zuriketa egiteko epea 2026ko azaroaren 30ean bukatzen denez, eta horren ordainketa ez denez datorren urtera arte egiten, hitzarmen honen indarraldia ordainketa hori egin arte izango da, eta asko jota, 2027ko azaroaren 30 arte.

Hala ere, eta hala badagokio, bi alderdiek espresuki eta idatziz hitzarmen hau luzatzeko aukera izango dute, ezartzen dituzten balditzetan, baina asko jota 4 urteko indarraldia izango du hitzarmen hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Zazpigarrena.- Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmen honetan egin daitezkeen aldaketak, sinatzaileek aho batez adostu ondoren, dagokion aldaketa-tresna sinatuz formalizatu beharko dira, hasierako hitzarmena onartzeko eskatzen ziren betekizun eta baldintza berberekin.

Zortzigarrena.- Hitzarmena azkentzea.

1.- Hitzarmena bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsipen-arrazoiak gertatzean azkenduko da.

2.- Suntsipen-arrazoi dira:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren indarraldi hori luzatzea ez erabakitzea.

b) Bi sinatzaileek hala erabakitzea.

c) Hitzarmen honen xede diren jarduerak ezinezko edo ez-beharrezko bihurtzen dituzten arrazoiengatik.

d) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebehar edo konpromisoak larriki ez betetzea. Halakoetan, beste alderdiak bere betebehar edo konpromisoak bete ez dituen alderdiari errekerimendu bat helarazi ahalko dio, 30 egun naturalen barruan ez-betetzat jo diren betebehar edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimenduan adierazitako epea igarota ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, zuzendu zuen aldeak hitzarmena baliorik gabe uzteko arrazoia jakinaraziko die sinatzaileei eta, beraz, hitzarmena baliorik gabe geratuko da.

e) Epailearen erabakiz.

3.- Hitzarmena edozein arrazoirengatik iraungitzen denean, hitzarmena iraungi aurretik sortutako eskubide eta betebehar guztiak bi alderdiek likidatu eta beteko dituzte, hargatik eragotzi gabe hitzarmena azkentzearen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak, legearen edo hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera.

ESKRIBATZAILEA-b7a7-362fcf36f1d4

Bederatzigarrena.- Hitzarmena ez betetzearen araubidea.

Alderdien betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik hitzarmena azkentzen bada, kalte-ordaina eman ahal izango da, baldin eta hitzarmena sinatu duen beste alderdiari kalte egiaztatuak eragin bazaizkio.

Hamargarrena.- Jarraipen-batzordea.

1.- Jarraipen-batzorde bat eratzen da, Mankomunitateko Enplegu-Sailarekin eta Udalean gai honetaz arduratuko den arduradunarekin, oro har, hitzarmen honen aplikazioaren jarraipena eta garapena egiteko.

2.- Jarraipen Batzordeak agindu ahal zaizkion beste eginkizun batzuk alde batera utzi gabe, honako funtzio hauek izango ditu:

a) Hitzarmen honen esparruan gauzatu beharreko jarduerak aztertzea eta, hala badagokio, ezartzea.

b) Hitzarmen honi esker programatutako jardueren ondorioz sortzen diren gastu guztien egiaztagiriak ikuskatu eta kontrolatzea.

c) Alderdiek beren betebeharrak eta eginkizunak behar bezala lortu, garatu eta gauzatzen dituztela ikuskatu eta kontrolatzea.

d) Lortu nahi den helburua ahalik eta ondoen betetzeko lanak koordinatzea.

e) Hitzarmena eta alderdiek hura aplikatzeko ematen dituzten tresna juridikoak interpretatzean eta gauzatzean sor daitekeen edozein desadostasun ebaztea.

3.- Batzorde hori sei hileroz behin bilduko da, eta beharrezkotzat jotzen diren teknikariek edo aholkulariek lagundu ahal izango diote. Ezohiko bilerak ere egingo dira alderdietako batek hala eskatzen duenean.

4.- Batzorde horren funtzionamendua bere baitan adosten diren arauetara egokituko da, eta, modu osagarrian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluko 3. atalean ("Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak") xedatutakora.

Horrenbestez, hitzarmen honetan zehaztutako baldintza guztiak onartzen dituztela adierazi eta jasota uzteko, bildu diren ordezkariek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte.

ESKRIBAUA-b7a7-362fcf36f1d4

HERNANI-KO UDALA **BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA**

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra **Mª Francisca Ibarguren Echeverria**

ESKRIBORROA-b7a7-362fcf36f1d4

EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310

1.GO ERANSKINA **HITZARMENETARAKO KOPURUA: LANBIDEREN LAGUNTZAREN BANAKETA**

Andoain	**BANAKETA**	**LANBIDEREN LAGUNTZA**	**%53 (2025)**	**%47 (2027an)**
Peoiak	3	37.500,00 €	19.875,00 €	17.625,00 €

Astigarraga	**BANAKETA**	**LANBIDEREN LAGUNTZA**	**%53 (2025)**	**%47 (2027an)**
Peoiak	2	25.000,00 €	13.250,00 €	11.750,00 €

Hernani	**BANAKETA**	**LANBIDEREN LAGUNTZA**	**%53 (2025)**	**%47 (2027an)**
Peoiak	3	37.500,00 €	19.875,00 €	17.625,00 €

Lasarte-Oria	**BANAKETA**	**LANBIDEREN LAGUNTZA**	**%53 (2025)**	**%47 (2027an)**
Peoiak	3	37.500,00 €	19.875,00 €	17.625,00 €

Urnieta	**BANAKETA**	**LANBIDEREN LAGUNTZA**	**%53 (2025)**	**%47 (2027an)**
Peoiak	2	25.000,00 €	13.250,00 €	11.750,00 €

Usurbil	**BANAKETA**	**LANBIDEREN LAGUNTZA**	**%53 (2025)**	**%47 (2027an)**
Peoiak	2	25.000,00 €	13.250,00 €	11.750,00 €

ESKR2[illegible]-b7a7-362fcf36f1d4

2. ERANSKINA. EGINGO DITUZTEN LANAK

Mantentze-lanak (egunerokoak eta orokorrak)

- Sumideroak, errejillak eta ur-ahoak garbitu (hidrogarbitzailearekin).
- Saneamendu sarearen mantenua eta konponketak.
- Udal eraikinen barneko eta kanpoko mantentze-lanak: pintaketak, konponketa txikiak.
- Fatxaden eta panel informatzaileen garbiketa.
- Kale garbiketak: estolda garbiketak, hostoak kentzea, zakarrontzien garbiketa.

Pintura-lanak

- Lur-seinaleztapena (trafiko-lineak margotu).
- Hiri-altzariak margotu: aulkiak, barandak...
- Haurren jolasguneetako jolasak margotu.
- Eraikinen barnealdeak margotu.

Igeltseritza-lanetan laguntza

- Espaloiak egitea.
- Arketak konpontzea.
- Igeltseroei laguntza orokorra udal lanetan.

Beste ofizio batzuekin elkarlana

- Elektrikari, iturgin eta errementariekin laguntza.
- Brigadako arotzekin eta igeltseroekin elkarlana.

Ingurumen eta lorazaintza-lanak

- Herri-bide eta lorategien desbrozatzea.
- Lorazaintzako lanetan laguntza.

Hiri-altzarien mantenua

- Aulkiak margotu, konpondu.
- Hiri-altzari orokorren konponketa eta margoketa.
- Kaleko seinaleak kokatu, orientatu eta garbitu.

Ekitaldi eta jarduera kulturalak

- Oholtzak eta egiturak muntatu.
- Aulki eta mahaiak lekuz aldatu.
- Ekitaldietarako horniketa eta prestatze-lanak.

Barne-antolaketa eta biltegiak

ESKR2[illegible]-b7a7-362fcf36f1d4

- Udal biltegiaren antolaketan lagundu.
- Beharren arabera beste lan osagarriak egin

ESKRIBATZAILE-b7a7-362fcf36f1d4

BETERRI BURUNTZA
Mankomunitatea

JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEAREN ETA BETERRI-BURUNTZAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2025 ALDIRAKO TOKIKO ENPLEGU-EKINTZAK GARATZEKO.

Memoria honen xedea da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.1 artikuluan ezarritakoa betetzea. Artikulu horrek xedatzen duenez, legeria autonomikoak aurreikus ditzakeen berezitasunak alde batera utzi gabe, beharrezkoa izango da hitzarmenarekin batera justifikazio-memoria bat aurkeztea, honako hauek aztertzeko: hitzarmenaren beharra eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, jarduera kontratuz kanpokoa dela eta lege honetan aurreikusitakoa betetzen dela.

1.- BEHARRA ETA AUKERA

2025eko irailaren 11n, Beterri-Buruntza Mankomunitateko Enplegu eta Prestakuntzako teknikariak txostena egin zuen, eta bertan ondorioztatu zuen egokia dela proposatutako hitzarmena sinatzea, Mankomunitatearen eta hura osatzen duten Udalen artean Lanbideren Tokiko Enplegu Ekintzak 2025 programatik eratorritako

MEMORIA JUSTIFICATIVA

CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR ENTRE LA MANCOMUNIDAD DE BETERRI-BURUNTZA Y LOS AYUNTAMIENTOS DE BETERRI-BURUNTZA PARA EL DESARROLLO DE ACCIONES LOCALES DE EMPLEO 2025.

La presente memoria tiene por objeto dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 50.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el cual dispone que sin perjuicio de las especialidades que la legislación autonómica pueda prever, será necesario que el convenio se acompañe de una memoria justificativa donde se analice su necesidad y oportunidad, su impacto económico, el carácter no contractual de la actividad en cuestión, así como el cumplimiento de lo previsto en esta Ley.

1.- NECESIDAD Y OPORTUNIDAD

Con fecha 11 de septiembre de 2025 se emite informe por la técnica de Empleo y Formación de Beterri-Buruntza Mankomunitatea, en el que concluye que resulta apropiado firmar el convenio propuesto con el objeto de regular entre la Mancomunidad y los Ayuntamientos que la conforman los compromisos y la financiación de los gastos derivados del

ESKRIBAUA-b7a7-362fcf36f1d4

konpromisoak eta gastuen finantzaketa arautzeko.

Aipatutako txosten teknikoak adierazten duen bezala, tokiko enplegu-ekintzak tokiko eremuan enplegua sustatzeko eta garatzeko berariazko programak dira. 2012an egindako Eskualdeko Enplegu Planean proposatutako neurrien barruan sartzen dira. Tokiko enplegu-proiektuak Lanbideren dirulaguntzen urteko deialdiaren bidez finantzatzen dira, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako.

Programa hori Beterri-Buruntza eskualdean garatu da aurreko edizioetan (duela hamarkada bat baino gehiagotik), eta harrera eta balorazio ona izan du enplegu-teknikarien eta laguntzaren onuradunen aldetik. Enplegu-datuen arabera, eskualdeko langabezia-tasa % 6,8koa da (2025eko ekaina); beraz, horrelako ekintzak estrategikoak dira langabeen enplegagarritasuna hobetzeko.

Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan, bi mota bereizten dira: enplegua sustatzea (1. mota, aldi baterako lan-esperientziaren bidez langabeen enplegagarritasuna handitzea helburu duten kontratazioak) eta kontrataziorako laguntzak (2. mota, tokiko enpresei laguntza ekonomikoa ematea Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak kontratatzeko). Aurtengo proiektuan ere bi mota horiek abiaraziko dira.

programa Tokiko Enplegu Ekintzak 2025 de Lanbide.

Tal y como indica el informe técnico mencionado, las acciones locales de empleo son programas específicos dirigidos al fomento y desarrollo del empleo en el ámbito local. Se enmarcan dentro de las medidas propuestas en el Plan de Empleo Comarcal elaborado en 2012. Los proyectos locales de empleo se financian a través de la convocatoria anual de subvenciones de Lanbide para acciones locales de promoción de empleo.

Este programa se ha desarrollado en la comarca de Beterri-Buruntza en ediciones anteriores (desde hace más de una década) y ha tenido una buena acogida y valoración por parte de los técnicos de empleo y beneficiarios de la ayuda. Según los datos de empleo, la tasa de paro comarcal es del 6,8% (junio 2025), por lo que este tipo de acciones siguen siendo estratégicas para mejorar la empleabilidad de las personas desempleadas.

Dentro de las Acciones Locales de Promoción del Empleo se distinguen dos tipos: fomento del empleo (tipo 1, contrataciones cuyo objetivo sea aumentar la empleabilidad de las personas desempleadas a través de la experiencia laboral temporal) y ayudas a la contratación (tipo 2, apoyo económico a las empresas locales para la contratación de personas desempleadas inscritas como demandantes de empleo en Lanbide). En el proyecto de este año también se pondrán en marcha ambos tipos.

ESKRIZ6ORR0Af-bBDARADOR-b7a7-362fcf36f1d4

Ondorioz, uste da neurri positiboa dela eskualdeko enplegagarritasuna hobetzeko, langabezia-tasa murrizteko eta laguntzen onuradun diren eta gehien behar duten langabeak lan-merkatuan sartzen laguntzeko.

En consecuencia, se estiman que es una medida positiva para favorecer la empleabilidad de la comarca, reducir la tasa de paro y favorecer la inclusión en el mercado de trabajo de las personas desempleadas, beneficiarios de las ayudas, que más lo necesitan.

2.- ERAGIN EKONOMIKOA

Onartu beharreko hitzarmenaren testuaren arabera, Beterri-Buruntza Mankomunitateak 187.500 € finantzatuko dizkie eskualdeko 6 udalei (Hernani, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbil), eta ezarritako irizpideen arabera banatuko dira udalen artean. Udalek jarduera anitzeko langileak kontratatzeko erabiliko dute ekarpen hori. Era berean, hitzarmenean ezartzen den bezala, Mankomunitateak bere gain hartzen du EAGIk ematen duen prestakuntza-ikastaroa eta prestakuntza horretarako behar diren materialak antolatzeko eta ordaintzeko gastua. Beraz, Mankomunitateak 21.750 €-ko betebehar ekonomikoak hartuko ditu bere gain.

Azkenik, ez da ahaztu behar udalak direla azkenean langileak kontratatzen dituztenak, eta, beraz, haiek egin beharko diote aurre kontratazioak dakarren langile-gastuari. Mankomunitateak 12.500 € emango dizkie udalei langile bakoitzeko, eta, beraz, udalak ordainduko du kontratatutako langileen gastuengatik egon daitekeen aldea.

2.-IMPACTO ECONÓMICO

Según el texto del propio convenio sujeto a aprobación, Beterri-Buruntza Mankomunitatea financiará a los 6 ayuntamientos de la comarca (Hernani, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Urnieta y Usurbil) una cantidad total de 187.500€, los cuales serán repartidos entre los Ayuntamientos según los criterios establecidos. Esta aportación se destinará por los Ayuntamiento para contratar a operarios multiactividad. Asimismo, tal y como se establece en el convenio, la Mancomunidad asume el gasto de organizar y costear el curso de formación que imparte EAGI, así como los materiales necesarios para dicha formación. Por tanto, las obligaciones económicas que asumirá la Mancomunidad para ello ascienden a 21.750€.

Por último, no hay que olvidar que los Ayuntamientos son los que finalmente contratan a los operarios, por lo que son ellos los que tendrán que hacer frente al gasto de personal que la contratación implica. La Mancomunidad por su parte entregará a los Ayuntamientos 12.500€ por operario, por lo que el Ayuntamiento costeará la diferencia que pudiera haber, en su caso, por los gastos del personal contratado.

ESKRIZ6BRB0Af-bBDBRADBR-b7a7-362fcf36f1d4

3.- JARDUERA KONTRATUZKOA EZ IZATEA

Honako artikulu honen arabera: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 6. artikuluaren arabera, lege honen eremutik kanpo geratzen dira Estatuko Administrazio Orokorrak, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek, unibertsitate publikoek, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoek, toki-erakundeek, haien mendeko nortasun juridiko publikoa duten entitateek eta nortasun juridiko pribatua duten entitateek beren artean egindako kontratuen edukian sartzen ez diren hitzarmenak, baldin eta azken kasu horretan botere adjudikatzailearen izaera badute.

Lankidetza-hitzarmenak ondorio juridikoak dituzten akordioak dira, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin egindakoak, sinatzaileen helburu komun bat lortzeko edo betetzeko (47 LRJSP). Planteatutako kasuan, helburua da langabeak kontratatzeko laguntza publiko baten kudeaketan koordinatzea eta lankidetzan aritzea, eta hori interes publikoko helburu komuna da, eta ez kontratuen ondare-truke tipikoa.

Lankidetza-hitzarmenak ez dira kontratuak zentzu hertsian, ez baitakarte zerbitzuak prezio baten truke ematea, baizik eta administrazioen arteko lankidetza helburu

3.- CARÁCTER NO CONTRACTUAL DE LA ACTIVIDAD

De conformidad con el art. 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador.

Los convenios de colaboración son acuerdos con efectos jurídicos adoptados por Administraciones Públicas, organismos públicos y entidades de Derecho público vinculados o dependientes, entre sí o con sujetos de Derecho privado, para la consecución o satisfacción de un fin común de los firmantes (art. 47 LRJSP). En el caso planteado, la finalidad es coordinar y cooperar en la gestión de una ayuda pública destinada a la contratación de personas desempleadas, lo que constituye un fin común de interés público, y no un intercambio patrimonial típico de los contratos.

Los convenios de colaboración no son contratos en sentido estricto, ya que no implican la prestación de servicios a cambio de un precio, sino la cooperación entre

ESKRIZOBRAF-b0DBRAD0R-b7a7-362fcf36f1d4

komunak lortzeko. Kasu horretan, bi alderdiek beren zatia jarri dute, bakoitzak hartuko dituen konpromisoekin (hitzarmenean jasota daude), lagundu nahi den kolektibo kaltebera laguntzeko helburu komunera iristeko.

Administraciones para la consecución de objetivos comunes. En este caso, las dos partes ponen de su parte, con los compromisos que adoptará cada una, las cuales se encuentran recogidos en el convenio, para llegar al fín común de favorecer al colectivo vulnerable que se pretende ayudar.

Ez da sektore publikoko kontratu bat, Mankomunitatearen eta Udalen arteko harremana ez datorrelako bat ondare-trukeko egiturarekin, ez eta prezio baten truke zerbitzuak edo hornidurak elkarri ematearekin ere (prezio hori administrazio-kontratuen ezaugarria da). Adierazi den bezala, SPKLk berariaz uzten ditu bere eremutik kanpo erakunde publikoen artean egindako hitzarmenak, baldin eta ez badituzte xedetzat Legean araututako kontratuen berezko prestazioak, eta lankidetza interes publikoko gogoetek soilik gidatzen badute, merkatu-bokaziorik gabe. Kasu honetan, helburua laguntza publiko baten kudeaketa koordinatua egitea da, ez aldeen artean obrak, zerbitzuak edo hornidurak kontratatzea.

No se trata de un contrato del sector público porque la relación entre la Mancomunidad y los Ayuntamientos no responde a la estructura de intercambio patrimonial ni a la prestación recíproca de servicios o suministros a cambio de un precio, que caracteriza a los contratos administrativos. Tal y como se ha señalado, la LCSP excluye expresamente de su ámbito los convenios celebrados entre entidades públicas, siempre que no tengan por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la Ley y que la cooperación se guíe únicamente por consideraciones de interés público, sin vocación de mercado. En este caso, la finalidad es la gestión coordinada de una ayuda pública, no la contratación de obras, servicios o suministros entre las partes.

4.- ALDEAK KUDEAKETA-GOMENDIOAREKIN

Kudeaketa-gomendioa, 40/2015 Legearen 11. artikuluak administrazio baten eskumeneko jarduera materialak, teknikoak edo zerbitzuak beste administrazio bati enkargatzea dakar, baina ez funtsak transferitzea erakunde hartzaileak bere izenean kudea ditzan, ezta laguntzak hainbat erakunderen artean banatzea ere helburu komun bat lortzeko. Planteatutako kasuan, Mankomunitateak ez die udalei agintzen beren eskumeneko jarduerak

4.- DIFERENCIAS CON LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN

La encomienda de gestión, regulada en el art. 11 de la Ley 40/2015, implica el encargo de actividades materiales, técnicas o de servicios de la competencia de una Administración a otra, pero no la transferencia de fondos para que la entidad receptora los gestione en nombre propio, ni la distribución de ayudas entre varias entidades para la consecución de un fin común. En el supuesto planteado, la Mancomunidad no encarga a los

ESKRIBAUA-b7a7-362fcf36f1d4

egiteko; aitzitik, Lanbidetik jasotako laguntzaren zati bat banatzen du, udalek, beren eskumenen esparruan, langabeak kontrata ditzaten, bakoitzak bere eginkizunak betez eta helburu komun baten pean jardunez, eta hori lankidetza-hitzarmenaren figurarekin bat dator, eta ez kudeaketa-mandatuaren figurarekin.

Ayuntamientos la realización de actividades propias de su competencia, sino que distribuye parte de la ayuda recibida de Lanbide para que los Ayuntamientos, en el marco de sus competencias, contraten a personas desempleadas, actuando cada uno en el ejercicio de sus propias funciones y bajo un objetivo común, lo que encaja en la figura del convenio de colaboración y no en la de encomienda de gestión.

Azpimarratu behar da, funtsean, Mankomunitatea arduratzen dela laguntzaren kudeaketa antolatzeaz eta Udalei zenbatekoak eskualdatzeaz, eta Udalen administrazio-zeregin bakarra bere kargura eta zuzendaritzapean egongo diren langileen kontratazio formala egitea dela.

Cabe destacar que básicamente es la Mancomunidad quien se encarga de organizar la gestión de la ayuda y de hacer el traspaso de cantidades a los Ayuntamiento, siendo la única tarea administrativa de los Ayuntamientos realizar la contratación formal del personal que va a estar a su cargo y bajo su dirección.

Planteatutako kasuan, Udalek ez dute Mankomunitatearen eskumen baten gauzatzaile material huts gisa jarduten, langileen kontratazioa eta kudeaketa zuzenean beren gain hartzen baitute, beren zuzendaritza eta erantzukizun esklusiboaren pean. Udalak dira langileak kontratatu, kontratuak sinatu eta Gizarte Segurantzara bidali behar dituztenak. Udalek beren eskumen propioak baliatzen dituzte eta beren erantzukizun esklusiboaren pean jarduten dute. Mankomunitateak ez du esku hartzen lan-kontratuen zuzeneko kudeaketan, ez eta kontratatutako langileen zuzendaritzan ere. Bestela, Mankomunitateak langileen kontratazioa bere gain hartuko balu eta langile horiek Udalen zuzendaritzapean zerbitzuak emango balituzte, langileen legez kanpoko lagapena egingo litzateke, lan-araudiak debekatua, mendetasun-harremana eta zuzendaritza eraginkorra Udalei baitagokie.

En el caso planteado, los Ayuntamientos no actúan como meros ejecutores materiales de una competencia de la Mancomunidad, sino que asumen directamente la contratación y gestión del personal, bajo su exclusiva dirección y responsabilidad. La contratación del personal, la firma de los contratos y su remisión a la Seguridad Social corresponde a los Ayuntamientos, que actúan en el ejercicio de sus competencias propias y bajo su exclusiva responsabilidad, sin que la Mancomunidad intervenga en la gestión directa de los contratos laborales ni en la dirección del personal contratado. Si, en otro caso, la Mancomunidad asumiera la contratación del personal y dichos trabajadores prestaran servicios bajo la dirección de los Ayuntamientos, se incurriría en una cesión ilegal de trabajadores, prohibida por la normativa laboral, ya que la relación de dependencia y la dirección efectiva corresponde a los Ayuntamientos

ESKRIZOBRADOR-b7a7-362fcf36f1d4

Gainera, kudeaketa-gomendioa ezin da erabili enplegatzaile izaera transferitzeko, ezta, de facto, langileen legez kanpoko lagapena dakarten lan-harremanak antolatzeko ere, eta horrek indartu egiten du lankidetza-hitzarmena tresna juridiko gisa erabiltzeko beharra.

Además, la encomienda de gestión no puede utilizarse para transferir la condición de empleador ni para organizar relaciones laborales que, de facto, supongan una cesión ilegal de trabajadores, lo que refuerza la necesidad de utilizar el convenio de colaboración como instrumento jurídico.

Langileen legez kanpoko lagapena, (Langileen estatutuko 43. artikulua), besteak beste, erakunde batek langileak kontratatzen dituenean beste bati lagatzeko, eta, beraz, langile horiek erakunde lagapen-hartzailearen zuzendaritzapean eta antolamendupean ematen dituztenean zerbitzuak, eta ez enplegatzaile formalaren zuzendaritzapean. Planteatutako kasuan, Mankomunitateak langileak kontratatuko balitu eta horiek Udalen zuzendaritzapean eta erantzukizunpean lan egingo balute, legez kanpoko lagapena egingo litzateke, Mankomunitatea izango litzatekeelako enplegatzaile formala, baina benetako zuzendaritza eta lanaren antolaketa Udalei egokituko litzaizkieke. Beraz, egoera hori saihesteko, kontratazioa Udalek egin behar dute zuzenean, eta lankidetza-hitzarmena da lankidetza eta funtsen banaketa antolatzeko tresna egokia.

La cesión ilegal de trabajadores, regulada en el art. 43 ET, se produce, entre otros casos, cuando una entidad contrata trabajadores para cederlos a otra, de modo que estos prestan servicios bajo la dirección y organización de la entidad cesionaria, y no de la empleadora formal. En el supuesto planteado, si la Mancomunidad contratara al personal y estos trabajaran bajo la dirección y responsabilidad de los Ayuntamientos, se incurriría en una cesión ilegal, ya que la Mancomunidad sería la empleadora formal, pero la dirección efectiva y la organización del trabajo corresponderían a los Ayuntamientos. Por tanto, para evitar esta situación, la contratación debe ser realizada directamente por los Ayuntamientos, siendo el convenio de colaboración el instrumento adecuado para articular la cooperación y la distribución de fondos.

5.- SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN URRIAREN 1EKO 40/2015 LEGEAN AURREIKUSITAKOA BETETZEA.

5.- CUMPLIMIENTO DE LO PREVISTO EN LA LEY 40/2015, DE 1 DE OCTUBRE, DE RÉGIMEN JURÍDICO DEL SECTOR PÚBLICO.

Hitzarmenetan sartu beharreko edukia Lege horren 49. artikuluan dago jasota. Txostena egiteko aurkeztu den hitzarmenaren edukia ikusita, haren edukiak, oro har, artikulu

El contenido a incorporar en los convenios se relaciona en el art. 49 de la citada Ley, pudiendo concluir a la vista del contenido del convenio sometido a informe que su contenido con carácter general da

ESKUZ0RR0af-b0DaRAD0R-b7a7-362fcf36f1d4

BETERRI BURUNTZA
Mankomunitatea

horretan ezarritakoa betetzen duela ondorioztatu ahal izango du.

cumplimiento a lo establecido en el citado artículo.

Hernani, 2025eko irailaren 15a

En Hernani, a 15 de septiembre de 2025

Lehendakaria Idazkari-kontuhartzailea

La Presidenta El Secretario-Interventor

72512563A MARIA FRANCISCA IBARGUREN (R: Q2000624C)
Firmado digitalmente por 72512563A MARIA FRANCISCA IBARGUREN (R: Q2000624C)
Fecha: 2025.09.22 15:09:38 +02'00'

JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T
Firmado digitalmente por JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T
Fecha: 2025.09.22 15:09:58 +02'00'

ESKRIBAUR-b7a7-362fcf36f1d4

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

ESPEDIENTEA: 2025/LPEEL/000040

2025/09/11 datan aurkeztutako eskaerari dagokionez eta aipatutako proiektuei buruz Tokiko Erakunde horri jakinarazten diogu:

Gipuzkoako Lurralde Bulego honek egiaztatu duela egin nahi diren enplegu-eskaintzak bat datozela aurkeztutako proiektuekin.

Aldi berean, jakinarazten zaio Tokiko Erakundeari eskabidearen ebazpenak baldintzatuko duela ebazpena eman aurretik egindako kontratuen diru-laguntza. Hau da, aipatutako kontratu horiek diru-laguntzaren aldeko ebazpen bat lortuko ez balute, kontratu horien kostuak Tokiko Erakundeari osoki legozkiokeela.

Jakin dezazuen eta dagozkion ondorioak izan ditzan

EXPEDIENTE: 202/LPEEL/000040

Respecto a la solicitud presentada en fecha: 11/09/2025 y a los proyectos de referencia se informa a esa Entidad Local que:

Se ha realizado por esta Oficina Territorial de Gipuzkoa la comprobación de que las ofertas de empleo que se quieren realizar se ajustan a los proyectos presentados.

Igualmente, que la subvención de los contratos realizados con carácter previo a la resolución que se adopte queda condicionada a los términos en que la misma sea dictada. Es decir, que en el caso de que dichos contratos no obtuvieran posteriormente resolución favorable de subvención, los costes de estos serán enteramente a cuenta de esa Entidad Local.

Lo que se comunica para su conocimiento y efectos oportunos

MONICA ANGELA VALDIVIELSO GARCIA - 15971842K

Firmado digitalmente por MONICA ANGELA VALDIVIELSO GARCIA - 15971842K
Fecha: 2025.09.17 10:14:49 +02'00'

EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310

EKS | CSV: ESKU2f6d87ef-b0de-4648-b7a7-362fcf36f1d4
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010